

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2014/05/29 HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 17:00 - 17:40	TOKIA Udaletxea
--	--------------------

BILDUTAKOAK:

- Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)
- Zinegotziak: Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)
Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)
Josu Pereda Leceta (BILDU)
Maidor Morras Azpiazu (BILDU)
Omer Arregi Biain (BILDU)
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)
Ibon Arrupe Aldecoceta (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)
- Idazkaria: Iñigo Garitano Larrañaga
- Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.
Iñaki Arriaga, Udaltzainburua

BILDU EZ DIREN
UDALKIDEAK:

- Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)
Raquel Diaz Larracoetxea (PSE-EE)
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)
Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)

BERTARATZE
ETA IRTEERAK:

Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Arratsalde on denoi, eta ongi etorri pleno berezi honetara.

Iazko ikasturtean ere, Eskola Agenda 21ean Bioaniztasuna aztertzen aritu zineten eta aurten ostera zatozte, bigarren urtez, proposamen berriekin gure ingurunea zaintzeko, natura errespetatzeko, ohitura sanoak hartzeko.

Gogorarazi nahi dut Bioaniztasunarena Eskola Agenda 21eko 11. proiektua dela, Arrasateko ikastetxe guztien artean, elkarlanean, burutzen ari zaretena. Benetan garrantzitsua da herriko eskola guztien artean halako lanak egitea, modu horretan Udalean aztertzen ditugun gaietan parte hartzen duzue.

Eskertzekoa da zuen ideiekin, proposamenekin eta galderekin egiten diguzuen ekarpena.

Oso lagungarriak dira guretzako. Horrexegatik, denei eskertu nahi dizuet urte osoan zehar egindako ahalegina.

Gogotsu nago entzuteko gaurkoan ekarri dizkiguzuen proposamenak eta ez naiz gehiago luzatuko. Ondo iruditzen bazaizue, has gaitzen pleno berezi-berezi honekin! Zuen da hitza!

1.- ESKOLAKO AGENDA 21: BIODIBERTSITATEA AZTERTZE: KONKLUSIOAK

Gaztelupe - Ainhoa Bolinaga: Arratsalde on!

Gaur hemen gaudenok Arrasateko Herri Eskolako, Institutuko eta Arizmendi Ikastolako (Gazteluondo Gunea, Arimazubi Gunea, Sta Teresa Gunea eta Gaztelupe Gunea) ikasleak gara. Ikastetxe horietako 6-18 urte bitarteko ikasle guztiok jardun dugu aurtengo ikasturtean Eskolako Agenda 21 lantzen.

Eskolako Agenda 21aren bitartez saiatzen ari gara Arrasatek aurrera egin dezan jasagarritasunaren bidean, eta gure esku dagoena egiten.

Arrasate Herri Eskola - June Diegez: Duela 11 ikasturte hasi genuen proiektua eta denbora luze horretan gai hauek landu ditugu: zaborra, ura, energia, kontsumoa, publizitatea, ekitatea, zarata eta uhin elektromagnetikoak, elikadura jasagarria eta azken bi kurtsotan bioaniztasuna.

Kurtsu honetan asko izan dira egindako lanak eta aktibitateak, bai gure zentroetan bai herriko hainbat txokotan, baina, zuek ideia bat egiteko, adibide gisa hemen zerrendatzen ditugu jarduerak:

Arimazubi - Joanes Elkorobarrutia:

- Nahiz eta aurreko ikasturtean gai berdina landu gaiaren aurkezpena egin genuen kurtso hasieran, bideo batzuk ikusi genituen bioaniztasunaren gaiari buruz.
- Euskal Herriko hegaztiei buruz eta enbor batean aurki daitezkeen zomorroi buruz Power Point batzuk egin ditugu; ekintza hauek prestatzeko (argazkiak ateratzeko, laginak hartzeko,...) aurretik irteera batzuk egin genituen Arrasaten.
- Ortuaren proiektuarekin jarraitu dugu zentro batzuetan; elikadura jasangarria landu genuenean Garagartzako ortuetara joateko aukera izan genuen eta azken bi urtetan zentro batzuetan ortuak prestatu ditugu eta dagoeneko gai gara gure produktu ekologikoak lortzeko.

Institutua - Gorka Gaztañaga:

- Konposta egiten dugu: zentro batzuetan konposta egiteko tresneria dugu eta sobera dugun materia organikoarekin konposta ateratzen dugu, oso baliagarria da gero gure ortuetarako.
- Gure zentroetako diagnostikoa egiteko inkesta batzuk bete ditugu guztion artean eta ondorio interesgarriak atera ditugu. Zentroetan txoko berdeak sortu ditugu.
- Hainbat zentrotan patruila berdea sortu dugu eskolako patioen egoera aztertzeko eta hainbat tokitan belarra erein dugu.

Gazteluondo - Olaia Calvo

- Udala auzoan ditugun ekosistema batzuk aztertu ditugu: artadia, landazabala eta egur landaketak, habitat horietan bizi diren animaliak zein landareak ondo ezagutu ditugu eta errespetatzeko kontzientzia hartu dugu.
- Ingurumen Eskolako ortutxoetan hainbat lantxo egin ditugu eta bertan dagoen biodibertsitatearen txokoa bisitatu dugu.
- Arrasateko biztanleei galdetegiak egin dizkiegu, emaitzak aztertu eta arazoak konpontzeko proposamenak atera ditugu .

Gazteluondo: Maialen Gallastegi

- Aurreko ikasturteko lanarekin jarraituz Arrasateko hainbat tokitan kabikutxak jarri ditugu. Gure txoriak hobeto ezagutzeko hainbat ekintza egin ditugu: hilero txori bat aukeratu eta marraztu, txorien kantuak entzun, txorien ohitura batzuk ezagutu,...
- Kurtso honetan ere herriko berdeguneak bisitatu ditugu (Santa Barbarak eta Monterronek gordetzen duten Bioaniztasuna hobeto ezagutu dugu). Hemengo zuhaitzak identifikatzeko

hostoekin horma irudi bat egin genuen, lupekin animalia txikiak ikusi, eta prismetikoekin hegaztiak behatu ditugu.

Arimazubi - Lide Zubia:

- Zuhaitz egunean egindako zuhaitz landaketan parte hartu dugu batzuk; Garagartza inguruan zuhaitz mota ezberdinak (.....) landatu ditugu.
- Ikastetxe inguruan dauden hainbat ekosistema (hariztia,...) aztertu ditugu; toki hauetako zuhaitzak identifikatu ditugu eta dauden egoerari buruz pentsatu dugu.
- Herriko zelaia aztertu ditugu: metro karratu bat aukeratu dugu eta esparru txiki horretako biodibertsitatea ikusi dugu..
- Monterronera joan gara bertan dauden espezieak aztertzeko (bertakoak eta kanpotik ekarritakoak).

Gaztelupe - Miren Atondo:

- Gure ibaietara joan gara eta bertan hainbat lan egin ditugu:
 - . Uraren hainbat parametro neurtu ditugu: oxigenoa, nitratoak,...
 - . Ibai ertzeko landaretza aztertu dugu.
 - . Ibaiko bioadierazletan fijatu gara kutsadura aztertzeko.
 - . Inguruko hegaztiak aztertu ditugu.
 - . Landare inbaditzaileak identifikatu ditugu.
 - . Gure ibaietako arrainak ere aztertu ditugu.
 - . Madariaga erreka joan gara egoera naturalean dagoen erreka aztertzeko.

Arrasate Herri Eskola - Txomin Iturbe:

- Egur landaketak ere ekosistema bezala aztertu dugu.
- Ikastetxe inguruetan ikasleek botatako zaborrak batu genituen eta arazo honetaz pentsatu dugu.
- Herri kaleetako bioaniztasuna zein den zerk kaltetzen duen ikasi dugu.

Gaztelupe - Eider Agiriano:

'Bioaniztasuna' gaia aztertu dugunean konturatu gara arazo asko agertzen direla (gure herriko bizimoduarekin lotutako asko) eta denok egin genezakeela zerbait hori guztia konpontzeko.

Esp.-kodea: 2014SAPL0006

Ikasle guztiok parte hartu dugu orain aurkeztuko dizkizuegun ondorio, proposamen eta konpromisoak egiten. Lehendabizi ikasgela bakoitzean adostu ditugu, gero ikastetxe bakoitzeko ikasgeletako ordezkarien arteko batzarrean, eta amaitzeko, hemen aurkeztuko dizkizuegunak ikastetxe guztietako ordezkarien arteko batzarrean adostu ditugu.

Herri Eskola - Nora Ferreiro:

Hemen aurrean gauden ikasleak lehen aipatu ditudan ikastetxe guztietako ikasleen ordezkariak gara. Orain entzungo dituzuen proposamen eta konpromisoekin Arrasateko bizi kalitatea hobetu nahi dugu, hau da, Arrasate hobe lortzen lagundu nahi dugu.

**ARRASATEKO UDALBATZARRERAKO ,KONKLUSIOAK, PROPOSAMENAK ETA
KONPROMISOAK**

Institutua - Alex Fernandez:

Arrasateko bioaniztasuna aztertzeke herriko hainbat ekosistema aztertu ditugu eta ibaia horietariko bat izan da.

Deba eta Aramaio ibaiak elkartzen diren tokian ibaiko bioaniztasuna aztertu dugu, eta ondorio hauek atera ditugu:

- Uretan neurtu ditugun parametroen arabera baldintza onak daude uretan bizidunak egoteko.
- Harrien azpian, ibaiaren hondooan, bioadierazle batzuk aurkitu ditugu eta horrek adierazten du uraren kalitatea onargarria dela.
- Uretan arrainak daudela adierazten duten hegaztiak (lertxuna, martin arrantzalea,...) ikusi ditugu.
- Landare inbaditzaile batzuk aurkitu ditugu eta seinaledun karramarro inbaditzailea ere bai.

Arimazubi - Nerea De la Maza:

- Ibaiaren ertz bietan 5 metroko babes gunea ez da errespetatzen.
- Ibai ertzeko basoaren funtzioak oso garrantzitsuak dira eta horregatik babestu, zaindu eta garbitu behar ditugu.
- Ibaiertzek eraldaketa handia jaso dute eta zabor kopuru handia aurkitu dugu toki hauetan.
- Konturatu gara azken urteetan ekosistema horietako bioaniztasunak hobera egin duela

Sta Teresa - Jokin Ayesa:

Gure ibaien egoerari lotuta daude udal honi egiten dizkiogun lehendabiziko proposamenak; hauek dira:

-“Udalak urtean planteatzen dituen errekaren garbiketekin jarraitzea ”

- “Ibai ertzeko landare inbaditzaileak kentzen jarraitzea”.
- “Ibai ertzeko landaretza ahal den neurrian errekueratu behar da, izugarritzko garrantzia du eta.

Sta Teresa - Maria Melgar:

Guk gure aldetik konpromiso batzuk hartzen ditugu: ibai bazterretan ez dugu zaborrik botako; etxean ur kontsumoa ondo zainduko dugu eta xaboia neurrian erabiliko dugu; bestetik erreka egunean parte hartuko dugu.

Herriko hiru ekosistema ezagutu ditugu: kalea, hariztia eta ibaia. Ikusi dugu kaleetako bioaniztasuna ez dela oso aberatsa, nahiz eta herri erdian bi berdegune handi eduki: Santa Barbara eta Monterron; herritarrok naturaz disfrutatzeko leku paregabeak eta guri oxigenoa ematen digute. Toki hauetan bioaniztasun handia gordetzen da, zuhaixkak, belarrak eta zuhaitz espezie asko zenbatu ditugulako. Hegazti mota asko ere ikusi ditugu baina landare inbaditzaileak ere (sasiarkazia batez ere).

Arimazubi - Maria Murillo:

Biodibertsitatea mantentzea garrantzitsua da, bizitzaren kate osoa mantentzeko. Guk ez badugu hau kontuan hartzen gure ondorengoek ez dute biodibertsitaterik ezagutuko.

Ikusi ditugun arazoei aurre egiteko hauek dira gure proposamenak:

Sta Teresa - Eleder Eslava:

- “Ur putzuak eta iturri gehiago ipini”.
- “Kaleetako argi kutsadura murriztu”
- “Lorategietan belarra berandu moztu, animaliek babes gisa erabiltzeko eta lore asko duten landareak ipini intsektuak erakartzeko”.
- “Zuhaitzak landatzekotan bertakoak izatea, ahal bada jateko fruitua daukatenak: gereziondoak, sagarrondoak, intxaurrondoak,...”.

Institutua - Danel Mangana:

Berdegune hauetan banku, iturri eta panel informatzaileen falta sumatu dugu berriz eta gure hurrengo proposamena hori da: **“udalak berdeguneetan dauden ekipamenduekin azterketa bat egin dezala eta faltan daudenak jartzeko, adibidez informazio panelak”**. Ideia hau ona iruditzen zaigu, baita ere, berdeguneetako bioaniztasuna eta historia ezagutzera emateko. Gu noski prest gaude ekipamendu horien erabilera egokia egiteko.

Arrasate Herri Eskola - Oier Gonzalez:

Udala auzoan ere biodibertsitatea aztertu dugu eta landazabala ekosistema ezagutu dugu; ikusi dugu bertan bioaniztasun handia gordetzen dela eta elikagai jasagarriak lortzen direla, bertakoak eta sasoikoak direlako. Baserriarekin guztiz lotuta dagoenez gure baserriak zaindu behar ditugu eta lagundu. Hona hemen proposamen batzuk:

- “Landazabala bizirik mantentzeko baserriarren produktuak erostea, adibidez, azoka plazan, beraz udalak lagun dezala hori bultzatzen”.
- “Baserriko produktu naturalen aldeko kanpainak bultzatzea”.

Gazteluondo - Nahia Irazola:

Aurreko ikasturtean kaleko txorientzako 16 habi-kutxa jarri genituen eta jarraipena egiterakoan konturatu gara horietako 2 bakarrik mantentzen zirela; bi horietan txoriek berain arrautzak jartzea lortu zen. Aurten ekintza berdina errepikatu dugu, hau da, apurtuta suertatu ziren habi-kutxak berriz jarri ditugu eta jarraipena egingo dugu.

Udal honi eskatzen diogu **“kalean habi-kutxaren bat apurtuta ikusiz gero informazio hori eskoletara pasatzea”** eta guk konprometitzen gara berriz jartzera.

Arrasate Herri Eskola - Beñat Barrena:

Herriko biztanleei 150 inkesta baino gehiago egin dizkiegu bioaniztasunaren inguruan dituzten ezagumenduak jakiteko. Ateratako ondorio batzuk hauek izan dira:

Gehienek badakite hitz horrek zer esan nahi duen baina oraindik %25k ez daki hitz horren esanahia.

Arrasate Herri Eskola - Araitz Molina:

. %30k bakarrik daki artea dela Udalatxen jaiotzen den zuhaitz nagusia.

. Badago kontzientzia hainbat gauza biodibertsitatek ateratzen ditugula esaterakoan (janaria, oxigenoa, egurra, ura, botikak eta materialak esaten denean), aldiz, arropak edo aisialdirako lekuak aipatzean, galdetutakoek ez dute lotzen zuzenean biodibertsitatea hitzarekin.

Institutua -Anje Pildain:

Herritarrek hainbat proposamen egin dituzte Udalak biodibertsitatearen alde lan egiteko eta guk gehien errepikatu direnak ekarri ditugu hona:

- “ Herrian berdegune gehiago egokitu edo sortu”.
- “Herrian dugun landaredia zaindu eta babestu dagozkion legedia aplikatuta”.
- “Birziklatzea bultzatu hainbeste zaborra ez dadin egon” eta
- “ Garraio publikoa eta bidegorriak indartu, trafikoa gutxitzeko.”
- “Kanpaina informatzaileak antolatu bioaniztasunaren garrantziaz herriak jabetzeko”.

Santa Teresa - Danel Bastardo:

Guk ahal dugun neurrian gure aportazioa ere egiten dugu eta eskolan hondakinak ondo sailkatuko ditugu, papera ondo aprobetxatuko dugu eta mendira goazenean errespetuz joango gara; herrian mugitzeko oinez edo bizikletaz egiten saiatuko gara eta ezin badugu horrela garraio publikoa erabiliko dugu.

¡ESKERRIK ASKO!

ARITZ ARRIETA (PSE-EE): Eskerrik asko danoi etortzeagatik eta urtero egiten duzuen lana oso garrantzitsua dala eta garrantzitsua dala oraindikan zuek emandako proposamenak udalean marxan jartzea baina denon artean.

Zuek esan duzuen bezala, danok egin beharreko lana da eta ikusi dut gure taldeak ikusi dau zuek oso ondo interiorizatu duzuela egin beharreko lan hori baina oso garrantzitsua da udalan parte hartzea. Orduan uste dut udalak konprometitu behar dela partehartze horretan eta medioak jartzea eta gero ia danon artean lortu beharko zuek egindako hausnarketa hori aurrera ateratzea. Ez?

Eta besterik barik jarraitu lanean holaxe eta haber datorren urtean berriz ere hemen ikusten garen.

JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV): Arrasateko ikasle eta irakasle guztioi eta bereziki hemen ordezkatzeko dituzuenok Arizmendi ikastolak, Arrasate Herri eskolak eta Insitutua. Esker mila eta zorionak bigarren urtean bioaniztasunari babesa emanaz lan hau gauzatu duzuenok.

Jasangarritasunaren bidean gai honek benetako garrantzia du ekosistemaren bizia ikasi dugulako errespetatzen eta kontzientzia hartzen.

Alde batetik, Udalaitz beheko artadia, Santa Barbara, Kurtzetxiki eta Monterroneko hariztiak, landazabalak eta berdeguneak. Bestetik habitat horietako bizi diren animaliak eta Aramaio eta Deba ianietan bizi direnak baita ere herri kaleetako bioaniztasuna azpimarratzekoa da. Gure artean hainbat arraza desberdinetako pertsonak bizi direlako.

Asko izan dira zuek egindako lana eta aktibitateak, adibidez, uraren hainbat parametro neurtu dituzue: oxigenoa, nitrogenoa etab. Ibaiarteko landaretza aztertuz arrainak eta landare inbaditzaileak identifikatu uretan arrainak daudela adierazten duten hegaztiak, adibidez, Lertxuna, Martin arrantzalea ikusi dituzue. Hala ere, bioaniztasuna aztertzean konturatu zarete arazo asko agertzen direla gure herriko bizimoduarekin lotuta daudenak eta denok zerbait egin beharra daukagula hori guztia konpontzeko.

Bioaniztasua ingurumen lehentasuneko erronka bat da ulertuta lurreko bizitzaren aukera zabal bezala guk hartzen dugu konpromisoa zuen eskaerak aurrera ateratzeko. Zuek zarete Arrasateko etorkizuna animo eta jarraitu horrela.

JOXE ETXEBARRIA (ARALAR): Arratsaldeon guztioi. Zuen lan guztia irakurrita gauza baten laburbiltzen duzue eta horrela dio:

Bioaniztasuna gaia aztertu dugunean konturatu gara arazo asko agertzen direla gure herriko bizimoduarekin lotutako asko eta denok egin genezakela zerbait hori guztia konpontzeko. Honek nolabait beste xehetasun guztietan sartu gabe laburbiltzen du zuek egin duzuen lana eta honek nolabait adierazten digu alde batetik udalak inguru honetan egin behar duen lana eta baita ere zuek bai orain eta hemendik aurrera ere gaur barneratu eta urte hauetan barneratzen ari zareten hori gerora ere lantzen jarraitzeko. Animo eta aurrera.

JOSU PEREDA (BILDU): Arratsaldeon Pleno berezira etorri zareten herritarroi. Gaurko ekitaldi honetan agerian dago entzun ditugun ekarpen guzti horien atzean egon den lana handia izan dela. Zorionak benetan denoi irakasle eta ikasleoi.

Egiten dituzuen proposamenei dagokionez, gure ibaietan dugun seinaledun karramarro inbaditzailearen presentzia geroz eta handiagoa batez ere, kolektorea eta araztegia martxan ditugunetik garbiago doalako erreka. Seinaledun karramarroaren presentzia handitzen joatea gure herriko bi erreka buruetan aurkitu diren bertako karramarroarentzat mehatxua handia eta arrisku horretaz ohartuta ahaleginak egiten ari gara babes neurriak jartzeko lehenbaitlehen.

Gonbidapena hemendik aurtengo erreka garbitzeko egunean parte hartze aktiboarekin talde handi bat osatzeko deneoi.

Landare inbaditzaileak erreka izkinatan ezabatzen jarraituko dugu. Kaleetan argi kutsadura murrizten aspaldi ari da udala horretan jarraituko dugu. Lorategietako belarra berandu nik uste gaur egun ere mozten dela aurrekontua duguna dugulako. Bertako zuhaitzak landatzen aritu gara eta landatzen jarraituko dugu. Baserritarren biziraupena eta ondorioz gure landa eremuaren egoera kontserbatzeko ahaleginetan bagabilyza hainbat ekimen aurrera eramanez eta abikutzan jarraipena egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Berez naturak oreka hauskorra du ezer gutxi nahikoa da bera apurtzeko gure eragina hain bortitza izan da azken urteetan oreka hauskor horretatik aspaldi urunduak garela, badago oraindik hainbat ekosistema babesteko eta berreskuratzeko aukera, hau da, oreka eskala txikian berreskuratzeko aukera. Hortxe jarri behar ditugu indarrak emaitzak lortzeko ordea gutxi batzuen lanak ez du ezer balio. Herritar guztiok egon behar dugu inplikaturik eta inplikazio horretan denok egoteko hezkuntza nahitaezkoa da klabea. Hasteko erakutsi egin behar da, erakutsi ezagutzeko ondoren, ezzagutu maitatzeko eta maitatu zaintzeko ondoren.

Bioaniztasun maila egokia izateak ekosistemak sortzea ahalbideratzen du, hau da, bizitzaren katea ez apurtzea eta horri esker ekosistema horiek gizakioi beharrezkoak ditugun zerbitzuak eskaintzen digute. Esaterako, ura, oxigenoa, lur emankorrak, elikagaiak etab.

Bioaniztasuna aberasteko dugun bitartekorik onenak hemen zaudete zarete hurrengo belaunaldiak eta euren hezkuntzan inplikaturik ikastetxeak eta udalako ingurugiro eskola zuek zarete bitartekorik onenak zuengan dago itzaropena beraz segi aurrera.

INAZIO AZKARRAGAUZAR (Lehendakaria): Ez dakit aurrekoan, apirilean elkartu ginenean, esango ote nizuen. Edo, akaso iazko pleno berezian aipatuko nuen.

Hala ere, zuek danok honen jakitun izatea gura dut eta ahaztu baino lehen gogoraziko dizuet: duela bi urte, Pleno Areto honetan bertan, konpromiso serio-serioa hartu genuen Arrasateko ondare naturala hobetzeko, kontserbatzeko eta ezagutarazteko. Eta, horretarako, hemen giñen denok konforme agertu ginen gure ondare naturala ez galtzeko lana egitearen alde.

Eta, iaz esaten nizuen bezala, hasi gara apurka-apurka ohiturak aldatzen, baina denbora galdu barik jarraitu behar dugu lanean, bioaniztasuna mantentzeko bai Mundu mailan, baita Arrasaten ere.

Argi dago denon artean soluzioak bilatu behar ditugula eta soluzio hoiek martxan jarri behar dira. Eta zuek gaur ere esku bete proposamen etorri zarete, zelako langile finak zareten!

Konturatu naiz erreken egoerari buruzkoak direla ekarpen asko eta esan gura dizuet baditugula bitartekoak gure errekek garbi joan daitezzen; herriko ur zikin gehiena kolektorera bideratuta dago, handik araztegiara zuzenean joan dadin. Han garbitu eta erreka itzultzen da berriz ura. Hala ere, hau ez da nahikoa, hondakin askok eta askok, herritarrak nahi edo nahi gabe, errekan bukatzen dute. Eta hori saihestu beharra dugu.

Denok egin behar ditugu ahaleginak etengabe sortzen ari garen gizartea jasangarria izan dadin. Zaindu ditzagun, inoiz baino gehiago gure errekek. Garbi dago, araztegiak dena ezingo duela garbitu.

Horrexegatik, denak animatu gura zaituztet urrian ospatuko den Errekaren asteko ekintzetan parte hartzera, ea erreka garbitzeko aurten asko elkartzen garen!

Gaur berdeguneei buruz ere hitz egin diguzue. Esan nahi dizuet Arrasateko berdeguneak modu iraunkorrean kudeatzen ditugula, ez dela ongarri kimikorik erabiltzen eta behar-beharrezkoak diren berdeguneak soilik ureztatzen direla. Horrez gain, gure berdeguneetan jartzen ditugun loreak sasoikoak dira eta landareak mantenu gutxi behar dutenak.

Zuek ondo esan duzuen moduan, bioaniztasuna bultzatzeko beste hainbat gai ere zaindu behar dira eta horretan ari gara. Adibidez, kontsumo arduratsua sustatzen ari gara, baseritarren produktuen aldeko kanpaina eginez, Bidezko merkataritza bultzatuz, gure Azoka biziberritzeko proiektuaz. Arrasaten ahalik eta gehien birziklatu dadin ere ari gara pauso berriak ematen... Hor ere badugu denon artean zer jorratu!

Eta gure herrian mugikortasuna hobetzeko ari gara bidegorrien sarea sendotzen, eta trafikoa gutxitzeko neurri berriak hartzen.

Tira! Aitortu behar dut egin dizkiguzuen ekarpen horiek guztiak entzunda, bioaniztasunen inguruan zuekin komentatzeko kontu ugari etorri zaizkidala burura.

Baina uste dut hobe izango dela nik proposamen guztiak udal departamenduetara eramatea, teknikariek eta politikoez aztertu ditzaten. Hurrengo jarraipen bileran elkarrekin aztertuko ditugu gaur hona ekarri dituzuen ekarpen guztiak. Konforme?

Denok hartu behar dugu konpromisoa eta elkarrekin lan egin behar dugu ganorazko ohiturak bultzatzeko.

Zuek oso ondo ari zarete bide horretan eta nik horrela jarraitzeko animatzen zaituztet.

Eskerrik asko, zorionak eta segi horrela!

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 17:40tan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2014ko maiatzaren 29an

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga

Inazio Azkarragaurizar Larrea